

Amildegia bat, historiaren erakusle

‘Kiputz, amildegia historiaurrea’ erakusketa zabaldu dute San Telmo museoan • Leizera erori ziren animalien arrastoak biltzen ditu

Nagore Arin Donostia

Sei metro luze; bi eta erdi metro zabal. Kiputz amildegia (Mutriku, Gipuzkoa) ezaugarriak dira horiek, baina, amildegia bat izateaz harago, tranpa bat izan zen: animalia asko leize horretara erori ziren, ezustean, deskuidu soil baten eraginez. Denbora pasatu ahala, tranpa natural hori garai hartako animalia askoren hezur eta hondarren bilgune bilakatu zen. Bertan pilatu ziren oreinen, elur-oreinen eta bison-teen hezur anitz. Leize horretan aurkitutako hezur horiekin guztiekin osatu dute leizearen izen berbera duen erakusketa: *Kiputz, amildegia historiaurrea*.

Gaurtik aurrera egongo da ikusgai, Donostiako San Telmo museoan: 2020ko otsailaren 9ra

arte. Gero, Altamira museoan (Santillana del Mar, Kantabria, Espainia) egongo da ikusgai: bi museo artean antolatuko dute erakusketa, Gordailuarekin eta Aranzadi zientzia elkartearekin elkarlanean. Atzo aurkeztu zuten eginiko lana, Donostian, eta hor izan ziren Pedro Castaños eta Xabier Murelaga erakusketaren komisarioak ere. 2004tik 2007ra egin zituzten, hain zuzen, hezur horiek ateratzeko eta aztertze indusketa lan guztiak. Aranzadi, Munibe eta EHUK osatutako talde batek egin zituen lan horiek, eta, historiaurreko animalien milaka hezur aurkitzeaz gain, azken glaziazioan nagusi izan zen klimaren nondik norakoak ezagutzeko datuak lortu zituzten.

Guztira, 18.000 hezur puska baino gehiago aurkitu dituzte



Kiputz, amildegia historiaurrean erakusketan ikusgai dagoen estepa bison-teen hezurak. MAIALEN ANDRES / FOKU

amildegian; horietatik gehienak, orain 20.000 urtekoak. Iberiar penintsula osoko elur oreinen, oreinen eta bison-teen multzo paleontologikorik «oparoenak» bildu dituzte, eta, kasu askotan, hezurdura horiek «ia osorik» berreskuratu. Posizio anatomikoan zeudelako, hots, hil baino



Klima aldaketa garrantzitsuak izan dira azken 20.000 urteetan; leize honetan aldaketa horiek biltzen dira»

Pedro Castaños
Erakusketaren komisarioa

«Iraganetik abiatuta, galderak planteatu, eta etorkizunari begira gogoeta egiteko balio du erakusketa honek»

Jon Insausti
Donostiako Kultura zinegotzia

lehen hartu zuten jarrera berean. Gizakiaren interferentziarik eza ere izan da hezurrik gehienak osorik kontserbatu izanaren beste arrazoi bat: ez zen inor leizean bizi izan, eta inork ez zituen animalia horiek jan.

Kiputz amildegia hiru ezaugarri azpimarratu nahi izan ditu Castaños paleontologoak: «Lehenik eta behin, aztarnategi oso aberatsa dela esango nuke, ikaragarri aberatsa». 18.000 hezur eta hondarrei egin die erreferentzia aberastasun hori aipatzen. Gaineratu duenez, lan ona egin dute aztarnekin; izan ere,

aurkitutako hezur guztien %70 identifikatu dituzte, atal bakoitza zein animalia edo espezierena den zehaztuta.

Erakusgarritasuna aipatu du Castañosek bigarren ezaugarri gisa: «Leize hau erakusgarria da garai hartan animalia espezie horiek bizi izan zuten garaia eta tes-tuinguruari dagokionez». Nabarmendu du «leize hertsiki paleontologikoa» dela, eta gizakiaren hartu-eman hutsala izan dela.

Kronologiaren interesari ere egin dio erreferentzia, azkenik. Esan duenez, aurkitutako hau oso baliagarria izan da garai hartako klimaren datuak ezagutzeko. «Klima aldaketa garrantzitsuak izan dira azken 20.000 urteetan, eta leize honetan aldaketa horiek guztiak biltzen dira», azaldu du. Zehazki, «azken glaziazioa» gisa sailkatutako aldia azpimarratu du: «Esan genezake erakusketa honetan ikus daitekeen fauna bat datorrela 'azken neku handia' gisa ezaguturiko aldi horrekin».

Hezurdurez harago

Erakusketaren pieza berezien artean dago estepako bison-ten burezur ia oso bat: Iberiar penintsulan bakarra eta Europa mendebalean espezie horretatik «ondo» kontserbatzen den aleen artean dagoen kaskezurra. Gutxi gorabehera, 900 kiloko pisua eta metro batetik gorako adar luzera zituen bison-tena. Azken glaziazioaren amaieran desagertu zen espezie hori, eta, burezuraz gain, gorputz osoko hezurak ere ikus daitezke San

Telmo museoan erakusketan. Hala ere, hezur guztiak ez dira bison-ten berberarenak. Bison-teen gain, elur orein baten hezurdura eta orein batena ere erakusketaren parte dira.

Bizkaiko itsasoko ertza estepa handia zen duela 20.000 urte, eta gaur egun jada desagertu diren animalia askoren bazkaleku zen. Gizakiekin batera bizi baziren ere, klima epeldu ahala, desagertu egin ziren, eta hori hezurren aztarnen esker jakin dute. «Garai hartan, itsasoa egun baino 18 kilometro urrunago zegoen kostaldetik», azaldu du Castaños. Gaur egungo itsas plataforma kontinental dagoen tokian zegoen estepa hartan, elurra ugari eta landarea urri zirela erantsi du.

Aurkitutako horien harira atera daitezkeen ondorioak aletzeko eta egin daitezkeen askotariko gogoetak egiteko bide ematen saiatu dira erakusketaren arduradunak. Hala, hezurduez harago, garaiko datu eta informazio andana biltzen duten azalpenak jarri dituzte hormetan. Hain justu, gogoeta egitearen beharraz hitz egin du Jon Insausti Donostiako Kultura zinegotziak: «Gure kostalde garai hartan nolakoa zen, gure klima nolakoa zen eta biodibertsitatea nolakoa zen ezagutzeko aukera ematen du». Gainera, iraganeko hezur eta hondar horietatik abiatuta gaurkotatzen duen erakusketa bat antolatzea goraipatu du Insaustik, «galderak planteatu eta etorkizunari begira gogoeta egiteko».

MARGOLARIA
The Painter

AZAROAK 19

ANDOAIN

BASTERO
19.00
PROIEKZIOA

AZAROAK 24

GASTEIZ

OIHANEDER
19.00
PROIEKZIOA
SOLASALDI MUSIKATUA

www.margolariafilm.eus

MALUTA FILMS ZUBIKU 2019 BERRIA 2019